

Herritarrekiko Harremanetako kontseilaria

ANA OLLO HUALDE

Iruñean 1965. urtean jaio zen. Bikotea eta bi seme ditu.

Informazio Zientzietan lizentziatua da Nafarroako Unibertsitatean (1988) eta Zientzia Politikoetan doktoretza ikasketak ditu, Euskal Herriko Unibertsitatean "Nafarroako Elite politikoak" (2001) tesiarekin. Horretaz gain, Institutio-komunikazioan Aditu titulua dauka Pompeu Fabra Unibertsitatean (1993) eta Zuzendaritza eta Kudeaketa Publikoan Masterra Nafarroako Unibertsitate Publikoan (2010). Euskara eta Ingeleseko B2 tituluak ditu.

Bere lan ibilbidea kazetari hedabide anitzetan hasi zuen, hala nola, Cadena Ser-en (Radio Bilbao), Navarra Hoy-en, Gazteizko RNE-n eta TVEk Bilbon eta Iruñean dituen ordezkarietara.

1991ean komunikazio instituzionalean lan egiten hasi zen. Urtebetez Nafarroako Gobernuaren Prentsa Kabinetearen aritu zen eta 1992ko abuztutik Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP) non erakundeko lehen komunikazio bulegoa osatu zuen. Oposizio bidezko komunikazio-teknika, 2007tik eta 2015 arte NUPEko Komunikazio Zerbitzua zuzendu zuen, lan hori Errektore Kabinetearen buru lanekin tartekatuz.

NUP-en Gobernuaren organoetan, hala nola, Klaustroan eta Gobernu Batzordean, Administrazioaren eta Zerbitzuaren langileak ordezkatzeko aukeratu zuten. Gainera, Espainiako Unibertsitate Errektoreen Konferentziako Komunikazioaren arloko (CRUE) kidea izan zen. 1992tik Unibertsitatearen Komunikazio Kabinetearen Elkargo profesionaleko (AUGAC) bazkide sortzailea da.

Baeza, Konpostela, Salamanca eta Alacant-en zein beste hainbat hiritan antolatutako unibertsitate eta erakunde komunikazio arloko kongresu eta topaketetan hizlari izanik, Medicus Mundi-ko komunikazio batzordean parte hartu zuen (2011-2013). Halaber, zenbait gizarte erakunderen bazkidea da, hala nola, Euskal Herria Irratia eta Paris 365koa.

2015ko uztailean, Nafarroako Gobernuaren Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari eta bozeramaile izendatu zuten. Azken kargu hau 2016ko irailean utzi zuen.

Geroa Baik egindako proposamena jarraituz, Nafarroako Gobernuaren Herritarrekiko Harremanetarako kontseilari izendatu dute 2019ko abuztuan.